



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

CD bikoitzaren aurkezpena

Arnold Schönbergen Gurre-Lieder

BOSen 90. urteurrena ospatzeko kontzertua
2012ko martxoaren 8-9a

Historiaren parte den diskoa



Kontzertuko argazkiak, Flickr-en:

<http://www.flickr.com/photos/bilbaorkestra/sets/72157629634129785/>

Gure 90. urteurrena ospatzeko kontzertuaren aurkezpenean promesa izandakoa errealitate bihurtu da orain, izan ere, Arnold Schönbergen *Gurre-Lieder* lan bikaina estreinakoz interpretatu genueneko kontzertua argitaratu dute.

Kontzertu hau zuzenean eta Bilboko ikus-entzuleen aurrean egin zen, hain berezia zitzaigun abagune batean. Eta, orain, kontzertu hori Bella Musica alemaniar disko-etxeak bere zigilu Thorofon-en argitaratu duela ikusi du BOsek.

Guretzat berebiziko garrantzia duen zer baita da hori. Orain dela urte eta erdi hura interpretatu genuenean ere garrantzia izan zuen (Euskadin estreinatzen zen, Vienan jo eta mende bat geroago), eta Günter Neuholdekin egin genuen, gure zuzendari artistiko eta titullarrarekin; ez dezagun ahaztu, gainera, zuzendari austriarra dela bera.

Baina, orain, ezohiko gertakari horrek gertakari iragankorra izateari utzi dio eta denboran iraungo duen proiektu bihurtu da, balio berezia duen proiektua. Disko honi esker, mundu mailan egiten den "orkestrazio murriztuko" Steine-n bertsioaren lehen grabazioa sartu dugu merkatu diskografikoan (hau da, 99 musikariz, abesbatzako 166 abeslariz eta 6 abeslari bakarlariz osatutako orkestra). Eta, gainera, badu beste balio erantsi bat ere: zuzeneko grabazioa dela, horrek dakarren magia eta zailtasun ororekin; 2012ko martxoaren 8an eta 9an egin zen, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 90. urteurrenaren ospakizun-kontzertuan.

BOSen gogo biziaren eta lankidetzaren ondorioz sortutako diskoa da hau, bai eta kontzertu haietan parte hartu zuten abesbatzei eta esku hartu zuten bakarlariei esker ere. Baina, batez ere, gure zuzendari Günter Neuholden ahalegin eta bultzadaren ondorioa da. Proiektua aurrera ateratzeko erakutsi zuen konpromisoak errealitate bihurtu du ametsa.

Lan hau, BOSen diskografiarekin bat egiteaz gainera, euskal konpositoreen musikari eskainita ez dagoen gure lehen diskoa da. Orain arte, gure diskoek Jesús de Guridiren, Pablo Sarasateren, Jesús Aranbarriren edota gure Fundazioari izena ematen dion konpositore bilbotar Juan Crisóstomo de Arriagaren musika eskaintzen zuten. Hemendik aurrera, berri, merkataritza-grabazio bat dugu, hain zuzen ere, Orkestra eroso sentitzen den musika esparru batean: sinfonismo handian, alegia.

ERWIN STEINen GURRE-LIEDERREN "ORKESTRAZIO MURRIZTUA"RI BURUZ (1922/1923)

Ulrich Krämer, Berlingo Schölberg Center Ikerketa Zentroko zuzendaria

Gurre-ren abestien grabazio hau orkestra "murriztu" baten lanaren moldaketa oinarri zela egin da (proportzio erraldoiko lan honen kasuan, tamaina arrunteko orkestra bat). Erwin Steinek, konposito-rearekin elkarlanean, sortu zuen moldaketa hori, Vienako Universal Edition delakorako. Stein Arnold Schönbergen ikasle izan zen 1906. urtean, baina denborarekin konposizioa utzi zuen, ziur asko, Anton Weber eta Alban Berg bezalako ikasle birekin lehiatzeak eragiten zion presioaren ondorioz. Horren orde, bere ibilbideari ekin zion musika zuzendari gisa (Kapellmeister). 1924. urtean, Universal Edition delakoaren orkestra saileko zuzendaritza hartu zuen bere gain, eta argitaletxearen aldizkarietako ("Musikblätter des Anbruch" eta "PultundTaktstock") editore buru bihurtu zen, hain zuzen ere, "Musika Berria" zabaltzeko ardura zutenena. Hala, Stein gero eta aktiboago agertzen hasi zen, musika editore gisa. Bere ekarpen inteligenteez, praktika garaikideak aztertu eta bere garaiko musikari buruzko auzi teorikoak aztertuz, bere lagun eta irakasle Schönbergen lanetan berriro arreta jartzera eraman zuten. Izan ere, beti izan zitzaion leial, baita Londresera derrigorrean emigratu behar izan zuenean eta Boosey&Hawkes musika-argitaletxean lana aurkitu zuenean ere.

1920az geroztik, Steinek orkestrako hainbat partitura moderno egokitu zituen, haize-instrumentuetako talde murriztuentzat, hiri txikietan

interpretazioa errazteko. Garrantzitsuenen artean, Alban Bergen Wozzeck operaren "Oldenburg Edition" izeneko dago.

Lan garaikideak egokitzea zen Steinek egiten zuen lan garrantzitsuenetako bat, Schönbergekin 1918. urtearen amaieran sortu zuen "Interpretazio Musikal Pribatuen Sozietatea" delakoan. Sozietate horren zuzendaritza artistikoa Anton Weberrek jarauntsi zuen, hura sortu eta handik bi urtera. Finantza-baliabide urriak zirela-eta, lan sinfonikoak moldaketekin baino ezin ziren interpretatu, pianoa lau eskurekin jotzeko eta ganbera taldeetarako. Hala ere, hasiera-hasieratik, beharrezkoak bertute egiten saiatu ziren, izan ere, hautatutako lanak egoera normaletan posible zena baino are sakonago entseatu zitezkeen talde murriztekin. Zentzu horretan, zuzendariek entseatzeko izan zituzten baldintzak ezin hobeak izan ziren interpretazio-ikuspegitik, eta gaur egun balio duten estandarrik finkatu zituzten. Sozietateak pianoa eta harmoniuma baliatu ohi zituen, garai hartako aretoko orkestratan sortutakoak. Instrumentuok egurrezko haize-instrumentuz osatutako talde baten eta hari laukote edo boskote baten osagarri ziren. Steinek, halaber, instrumentu horiek erabili zituen Gurre-Liederren moldaketan; kendutako egurrezko haize eta metalezko instrumentuak ordezkatzeko balio dute, eta, pianoaren kasuan, hirugarren eta laugarren

harpen ahotsak ordezkatzeko. Hari, perkusio, zeleta eta harpa biz gainera, Steinen orkestrazio murriztuak, jatorrizko partiturako egurrezko 5 eta 8 haize-instrumentuen eta metalen sekzioko 7 eta 10 instrumentuen aldean, egurrezko 3 eta 4 haize-instrumentu baino ez ditu, eta metalezko 4tik 6ra bitarteko haize-instrumentu; azken horietan, III. zatiko Ehizaldiari gehitutako 5. eta 6. tronpak ad libitum-en jotzen dira. Neurri horrek, itxura batean, Schönbergen iradokizun batera garamatza.

Stein 1922. urtearen amaiera aldera hasi zen Gurre abestien partituraren moldaketan lan egiten, Darmstadt-en; izan ere, bertan, musika-zuzendaria- ren kargua hartu zuen 1918an eta lotura pertsonalak ezarri zituen. Dirudienek, ekimena Universal Editionetik abiarazi zen; bertako zuzendari Emil Hertzkek 1914ko martxoan iradoki zuen moldaketa mota hau. Schönberg bera Waldau-beren abesti baten moldaketan ari zen lanean ganbera ensemble batentzat, beraren zuzendaritza- pean Kopenhagenen aurkeztuko zen *9. ganbera sinfoniaren* interpretazioari zerbait harrigarri gehitzeko asmoz. 1923ko otsailean, I. eta II. zatia amaituta zituen, eta Schönbergi bidali zizkion, berrius zitzaiz. Lau aste baino gutxiago geroago, amaituta zeukan III. zatia. Orkestrazioa murrizteaz gain, beste neurri batzuk ere hartu zituen, besteak beste, tronpetak saihestea afinazio desberdinetan, eta, horri esker, interpretazioa erraztu zuen. Ahale-

ginaren zati bat gizonezkoen abesbatza sinplifikatzean zetzan, eta zailtasun handia tenorren lerro altua zen; hori “puntuazio zuhurren” bitartez konpontzen saiatu zen, hau da, zenbait pasarte altu zortzidun baxuago batean ematea. Era berean, ahots indibidualak ere alde batera utzi zituen, sinplifikatzeko asmoz. Martxoaren 1ean, Schönbergék, gutun bidez, baimena eman zion sekzio polifonikoetan ere aldaketak egiteko; izan ere, ordurako ez zuen guztiz sinesten “polifonia

mota horren justifikazio teknikoan”. Baimen hori gorabehera, Steinek aldizka aholku eskatu zion Schönbergi, xehetasun txikiei buruz; hori dela eta, euren arteko korrespondentziak informazio ugari eta garrantzitsua eskaintzen du, Vienako Eskolako orkestrazioen praktikari buruz.

Steinen orkestrazioaren lehenengo interpreta- zioaren data ez da dokumentatu, argialetxearen katalogoak ez baitira 1928ra arte hasten.

Egiaztatu da bertsio murriztu bat interpretatu zela 1929ko urtarrilaren 18an Vienna Concert Hallen, Paul von Klenaren zuzendaritzapean; azken horrek Gurre-Liederrak zuzendu zituen 1923ko azaroan, Viena. Schönbergék berak, 1929an bertan, I. zatiko 5. zenbakitik 9. zenbakira bitarteko maitasun-abestiak zuzendu zituen, dagokien intermezzoarekin, bai eta Waldtauberen abestia ere, Steinen bertsioan, Berlingo “Funkstunde” irrati-kanalerako.

Instrumentation

	Original version - 1911	Erwin Stein's reduced version - 1920
Flute	8 [1,2,3,4,5/Picc,6/Picc,7/Picc,8/Picc]	4 [1/Picc,2/Picc,3/Picc,4adlib]
Oboe	5 [1,2,3,4/Eh,5/Eh]	3 [1,2/Eh,3/Eh1]
Clarinet	7 [1,2,3,4/Bcl,5/Bcl,6/Ebcl,7/Ebcl]	4 [1,2,3/bcl,4/Ebcl]
Fagot	5 [1,2,3,Cbn1,Cbn2]	3 [1,2,3/Cbn]
Horn	10 [1-6,7/TW,8/BW,9/TW,10/BW]	6
Trumpet	7 [1,2,3,4,5,6,7/Btpta]	4
Trombone	7 [1,2,3,4,5/AT,6/BT,7/CT]	4
Tuba	1	1
Timpani	2 players	2 players
Percussion	6 [Grosse Rührtrommel, Becken, Triangel, Glockenspiel, Kleine Trommel, Grosse Trommel, Holzharmonika, Ratschen, Einige grosse eiserne Ketten, Tam tam]	6 [Grosse Rührtrommel, Becken, Triangel, Glockenspiel, Kleine Trommel, Grosse Trommel, Holzharmonika, Ratschen, Einige grosse eiserne Ketten, Tam tam]
Harp	4	2
Celesta	1	1
Piano	0	1
Harmonium	0	1
Strings	20Vn1 20Vn2 16Vla 16Vc 12Db	16vn1 14Vn2 12Vla 10Vc 8Db

BILBOKO SINFONIKOAREN 90. URTEURRENA

Orkestra bat, inolako etenik gabe (Gerra Zibilak 1937ko apirilaren 4aren eta 1938ko abuztuaren 10aren artean eragindako geldialdia salbu), 90. urtez jardunean egotea aipatu beharreko jazoera da, izan ere, ez dago munduan horren antzinako *jaiotza-aktarik* aurkez ditzaketen formazio sinfoniko askorik.

Mundu osoko orkestrak sortu zireneko datak zehatz-mehatz aztertzeke asmorik gabe, berrikusketa orokor bat egiteak ulertzen lagun diezaguke nola 110.000 biztanle baino gutxiago zituen hiri batek, 1922an, bere orkestra sinfoniko propioa sor lezakeen.

Chicagoko Orkestra Sinfonikoa 1891

Orchestra Nazionale de Santa Cecilia (Erroma): 1908

Stockholmeko Errege Orkestra Filarmonikoa 1914

Birmingham Hiriko Orkestra: 1920

Mexikoko Orkestra Nazional Sinfonikoa: 1928

Venezuelako Orkestra Sinfonikoa: 1930

Belgikako Orkestra Nazionalea: 1931

Txileko Orkestra Nazionalea: 1941

Buenos Airesko Orkestra Sinfonikoa: 1947

Argentinako Orkestra Nazionalea: 1948

Espainiako Orkestra Nazionalea: 1940

Bartzelonako Orkestra Sinfonikoa: 1944

Moskuko Orkestra Filarmonikoa: 1951

Parisko Orkestra Sinfonikoa: 1967



Orkestra horiek noiz sortu ziren ikusiz gero, ez da zaila ulertzea BOS bezalako talde bat abiarazteko erabakiaren garrantzia, izan ere, bederatzi hamarkadatan, Bilbao, Bizkaia eta Euskadiren bizitza kulturalari lagundu die. Euskal Herriko mugak gainditu zituen garrantzia da, izan ere, 1945 eta 1964. urteen artean, orkestrak ia urtero egiten zituen birak Espainiako iparraldetik eta erdialdetik (kasu batzuetan, are urrunago joan zen eta Andaluzian ere jo zuten), eta, *de facto*, Espainiako iparraldeko orkestra bihurtu zen. Aipatutako hori garrantzitsua da, izan ere, urteko bira horiei esker (arteana, txangotzat hartzen ziren), BOSek 61.000 km egin zituen urte horietan (hau da, munduari bira bat eta erdi eman zion Ekuadorretik).

Baina denbora eta agerraldiak ez dira gure Orkestraren garrantzia areagotu duten faktore bakarrik. 90 urte eta 4.000 emanaldi sinfoniko horietan, Orkestran unean uneko bakarlari eta zuzendari garrantzitsuenak jo izan dute. Euskal musikari eta konpositoreak promozionatu eta bultzatu ditu, eta, finean, Bilbora, Bizkaira eta Euskadira musika sinfonikorik onena eta unean uneko protagonistak ere ekarri ditu.

Horren adibide dira gure *lan fetix* bi. J. Guridiren *El Caserio* eta M. Ravelen *El Bolero*. Kasu bietan konpositore hauek Orkestra zuzendu zuten.

Azken buruan, gure hiriak eta gure lurraldeak BOSek bezalako historia eta profila duen orkestra bat edukitzea lehen mailako aktibo kulturala eta nazioarteko prestigioeko elementu kulturala da.

Are gehiago, egun duen maila teknikoa eta artistikoa aintzat hartuz gero. Ez da kasualitatea, beraz,

Japonian jotzeko gonbita jaso izana azken urteotan, hain zuzen ere, 2007 eta 2009. urteetan egindako bi biretan, 50.000 pertsonaren aurrean jo zuen.

BOSen historia

LBilbao Orkestra Sinfonikoak 1922ko martxoaren 8an eman zuen bere lehenengo kontzertua, Arriaga Antzokian, Armand Marsick zuzendaritzapean. Bizkaiko gizarte zibilaren bultzadari esker sortu zen, eta, geroztik, harreman estua dauka Bizkaiarekin: gaur egun, esate baterako, 2.200 abonatu baino gehiago ditu Denboraldi Sinfonikoan.

Sortu zenetik, zuzendari titular garrantzitsuak izan ditu: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara eta Juanjo Mena. 2008ko uztailaz geroztik, Orkestraren zuzendaritza titular eta artistikoa Günter Neuholden esku dago.

BOSek, 86 urte hauetan, lan handia egin du Bilbon, Bizkaiaren eta atzerrian. 2003ko uztailan, Valery Gergievек San Petersburgoko Mariinski Antzokian jotzeko gonbita egin zion BOSi, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Kontzertu hori hiriaren 300. urteurreneko ospakizunen barruan izan zen. Kontzertua mugarría izan zen Orkestraren nazioarteko proiektio berrian; izan ere, sarritan gonbidatzen dute Nanteseke *La folle journée* eta Marseillako *La Roque D'Antheron* jaialdietara. 2007ko maiatzean lehenengo aldiz gonbidatu zuten Japoniara, eta 10 kontzertuko seriea eskaini zuen Tokion, 40.000

pertsona ingururentzat. Handik bi urtera, Orkestra berriro gonbidatu zuten herrialde horretara joateko. Orduan, bira bat egin zuen zazpi hiritan, eta 10.000 pertsonaren baino gehiagoren aurrean aritu izan zen.

Nazioarteko foroetan daukan presentzia gain, BOSen historian nabarmendu beharra dago, Espainiako hirietatik egindako birei esker, hamarkada luzez "Iparraldeko Orkestra" izatera heldu zela. Era berean, BOSek maiz jo izan du Madrilgo Auditorium Nacionalean, Donostiako Musika Hamabostaldian, Santanderreko Nazioarteko Jaialdian, Parisko Jaialdian, Cuencako Erlijio Musikaren Jaialdian edo Iberoaméricaren "Munduko Orkestrak" zikloan. 1998ko martxoan, Madrilgo Complutense Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zituen Carmelo Bernaola, Cristóbal Halffter eta Luis de Pablo konpositoreak, eta BOS inbestidurako kontzertura gonbidatu zuten. 1998an, Euskadiren ordezkari izan zen Lisboako Nazioarteko Erakusketan, eta 1999an, berriz, Orkestraren egoitza den Euskalduna Jauregiaren inaugurazioan hartu zuen parte.

BOSen zuzendarien artean izen historikoak daude: Enrique Fernández Arbós, Bartolomé Pérez Casas, Ataulfo Argenta, Hans Von Benda, Eduardo Toldrá, Sir Malcolm Sargent eta Igor Markevitch, besteak beste, bai eta Charles Dutoit, Ros Marbá, García Asensio, Jerzy Semkow, Josep Pons eta Aldo Ceccato ere. Era berean, Maurice Ravel, Jesús Guridi, Pablo Sorozábal, Jesús Arámbarri, Krzysztof Penderecki, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Ernesto eta Cristóbal Halffteren esku ere egon da, bai eta beraien obrak jo izan dituzten konpositoreen esku ere.

BOSeK, bere historia luzean, bakarlari handienetako batzuekin konpartitu izan du eszenatokia: José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacques Thibaud, Vladimir Horowitz, Fritz Kreisler, Joseph Szigeti, Henryk Szeryng, Vlado Perlemuter, Mstislav Rostropovich, Salvatore Accardo, Joaquín Achúcarro, Felix Ayo, Nicanor Zabaleta, Maurice André, Mischa Maisky, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Boris Belkin, Ivo Pogorelich, Jean Pierre Rampal, Viktoria Mullova, Asier Polo, Truls Mork eta Frank Peter Zimmermannekin, besteak beste. Ahotsen zerrendan, Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo eta Luciano Pavarotti aipatu behar dira, bai eta Bilboko Koral Elkartea, Donostiako Orfeoia eta EHUKo Abesbatza ere.

BOSen katalogo diskografikoaren barruan, Naxos etxerako grabatutako euskal musikari buruzko bilduma interesgarria nabarmendu behar da, non Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga eta Sarasateri eskainitako CDak baitaude, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Halaber, Jesús López Cobosekin 1985ean egindako Arriagaren lanen grabazioak ere nabarmentzen dira.

Euskalduna Jauregian egiten duen abonuko denboraldiaz gain, BOS modu naturalean hedatzen da Bizkaiko herrietara, OLBEn operetan aritzen da lankidetzan, birak eta irteerak egiten ditu, eta, gainera, kontzertu didaktikoak eskaintzen ditu 1985etik. Ekimen horretan aitzindaria dela esan daiteke. Era berean, lankidetzaren harremanak ditu beste kultur instituzio batzuekin, hala nola, Arriaga Antzokiarekin eta Guggenheim Bilbao Museoarekin.

BOSen jarduera bere zale ugarien babesari eta Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala babesleen ekarpenei esker garatzen da.



90. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

Bilbao Orkestra Sinfonikoak bere laurogeita hamargarren urteurrena ospatuko du, lan bikain bat interpretatuz: Arnold Schönbergen *Gurre-Lieder* lana. Lan bikaina da eta ezohiko ahalegina eskatzen du, musikari, antolakuntzari eta ekonomiari dagokienez.

Eszenatokian 99 musikari egongo dira, sexu bietako 165 abeslari, 6 bakarlari eta zuzendaria. Hau da, 270 pertsona baino gehiago.

Lan honen bikaintasuna hurrengo datuetan ikus daiteke:

- 1913ko otsailaren 23an Vienan estreinatu bazuten ere, BOSek Euskadin estreinatuko du 2012ko martxoaren 8an.
- Interpretatuko dugun bertsioa E. Steinena da, zeinak bere maisuaren lana interpretatzea ahalbidetzen zuen tamaina batera egokitu baitzuen; izan ere, Schönbergen bertsio originalak eszenatoki gainean gutxienez 145 musikari egotea eskatzen du, abesbatzaz gainera. E. Steinen bertsioa, 2005az geroztik, hiru aldiz interpretatu izan dute mundu osoan. 2005ean, Japoniako Saito Kinen Orchestra izenekoak; 2010ean, Berliner Philharmoniker delakoak, eta datorren martxoaren 8 eta 9an, Bilbao Orkestra Sinfonikoak.

Disko baten grabazioa prestatzen

Une honetan ez dago A. Schönbergen lan honen bertsioaren inolako grabaziorik. Horregatik, BOSek martxoaren 8ko eta 9ko emanaldiak grabatzea erabaki du, disko bat grabatzeko asmoz; ondorioz, Schönbergen lan ikaragarri honen lehenengo erregistroa izango da, E. Steinen bertsioan.

Erronka handia da, ezbairik gabe. Espero dugu bide onetik joatea, oso aurreratuta baikoaz grabazioa bere zigiluan sartu gura duen disko konpainia garrantzitsu batekin ditugun harremanetan.



OBRA

MUSIKA BERRIRANTZ

"Nire bilakaera osoaren gakoa". Horrela aipatzen zuen Schoenberge bere *Gurrelieder* (1900-11) lana. Obra horrek neurri izugarri eta ezohikoak ditu, eta ikus-entzulea harrituta geratuko da alde aurretik: Edwin Stein ikaslearen bertsioa, gaur gauean entzungo dugun bertsioa beraz, bi orduko musika saioa da, eta, bertan, hainbat parte-hartzaile daude: narratzailea, bost ahots bakarlari (sopranoa, mezzoa, bi tenor eta baxua), lau ahotseko hiru koru maskulino eta zortzi ahotseko koru misto bat, haize-egurrezko hamalau instrumentu, haize-metalezko hamabost instrumentu, perkusiozko hamasei (tartean, sei tinbal), bi harpa, zeleta, pianoa, harmoniuma, eta, gutxienez, lehen mailako hamabi biolin, bigarren mailako hamar, zortzi biola, zortzi biolontxelo eta sei kontrabaxu. Hala ere, lar aditua ez den zalearentzat, egilearen partiturarik errazenetakoa da hau, edo, behintzat, ulertzeko zailtasun gutxien dituenetakoa; eta hori horrela zergatik den ulertzeko, ondorengo lerroetan jakingo dugu nor zen konpositore vienaar hau, hainbeste errespetatzen zutena eta, aldi berean, hain polemikoa izan zena.

Arnold Schoenberg

Vienan jaio zen 1874ko irailean, jatorri juduko familia batean. Konpositore autodidakta izan zen, eta bere erreferentzia nagusia Richard Wagner izan zen hasiera-hasieratik; izan ere, Wagnerren drama musikalek muturreraino tenkatu zuten musika tonala, musika mota horren behin betiko apurketa iragartzera heltzeraino. Hori dela eta, 1899an, Schoenberg gazteak eragin wagneriar

handiko obra bat konposatu zuen; hain zuzen ere, *Verklärte Nacht* (*Eraldatutako gaua*) sestetoa. Baina, beharbada, harago joateko asmoa zuen, berak zeregin historikoa bete nahi baitzuen: lehenengo eta behin, apurka-apurka erregimen atonala ezarri nahi zuen, eta, gero, "datozen ehun urteotan musika alemaniarren nagusitasuna" bermatuko zuen sistema berri bat sortu nahi zuen: dodekafonismoa. Naziek 1933an baztertu zutelarik, Estatu Batuetara joan zen bizitzera, eta hantxe hil zen 1953ko uztailen.

Hori horrela, hiru etapa ditugu oro har: lehenengoa posterromantikoa izan zen, eta, bertan, bere egin zuen XIX. mendeko konpositore alemaniarren ondarea, batez ere Wagnerrena; bigarrenean, praktikara eraman zituen Lisztek 1881. urtearen inguruan egindako iragarpenak: musika tonaletik atonalera bitarteko trantsizio naturala; eta, hirugarrenean (gutxi gorabehera, 1923tik aurrera), sistema dodekafonikoa garatu zuen, hamabi noten teknikan oinarrituta. Abentura hauetan, Anton Webern eta Alban Berg dizipuluen laguntza izan zuen hasieran, eta, denek batera, Vienako Bigarren Eskola gisa ezagutu zena osatu zuten. Iraultza atonalak eta, ondoren, dodekafonismoaren ezarpenak izandako garrantzi izugarria gaur egunera arte heldu da; izan ere, musika inoiz ez zen berdina izan Schoenbergen ostean, eta hori bizitza bera bezain benetakoa da. Baina *Gurrelieder* direlakoak lehenengo etapan konposatu zituen batez ere, eta lan horien sustraiak lehenago bilatu behar dira.

Aurrekariak

Esan ohi da *Gurrelieder* hauek erromantizismo europarraren ildo nagusien sintesia direla: bertan daude sinfonia klasikoaren konbentzioak hautsi eta *Bederatzigarrena* lanean ahotsa sartu zuen Beethoven hura, maitasun poetikoen Schumann hura, kondaira dramatikoaren Berlioz hura (*Faustoren kondenazioa*), melodramen eta anbiguotasun harmonikoen Liszt hura, iparraldeko kondairen Sibelius hura (*Kullervo*), eta egitura sinfoniko handien Brahms hura. Wagner ere badago, jakina, eta beste inor baino gehiago. Gainera, 1900. urterako, Mahlerrek bere *Bigarren sinfonia* ("*Berpi-zkundera*") estreinatu zuen, eta Straussek, berriz, bere poema sinfonikoetako batzuk. Baina ez dago inongo aurrekaririk hain koru eta orkestra handiekin, ez honelako indarkeria espresiboarekin, ez eta, beharbada, tentsio dramatiko honekin ere. Schoenberge mugaraino eraman zuen erretorika erromantikoa, erupzioan zegoen sumendi batekin; eta, modu horretan, bere printzipio guztiak dinamitatu zituen, Musika Berrirantzko bidea betiko leuntzeko.

Poema: Waldemar eta Tove

Baina zer dira benetan *Gurrelieder*-ak? Berez, eskala handiko kantu-ziklo bat dira (*lieder*), baina, batzuetan, oratorioa direla esan izan da, beste batzuetan kantatak direla, eta beste inoiz sinfonia dramatiko handi bat osatzen dutela. Musika jartzen diote Peter Jacobsenen poema bati. Hain zuzen ere, poema hori Erdi Aroko kondaira daniar batean dago inspiratuta;



Waldemar IV.a Atterdag (1340-1375) erregearen eta Tove Lille neska gaztearen arteko maitasun sekretuari buruzko kondairan, alegia. Istoria, gutxi gorabehera, hau da: Waldemar eta Tove Rügenen maitemindu egin ziren. Itsaso Baltikoko uharte batean; neska gaztearekin Selandiatik itzulita, erregeak Gurreko gaztelua eraiki zuen harentzat, Esrom lakuaren ondoan. Jelosiak jota, eta Waldemar bertan ez zela, haren emazteak, Helvig erreginak, bere maitale Folkvard Lavmandssonen bitartez, ganbera batean giltzaperatu zuen Tove, eta bertan hil zen agonia geldoan. Poema hau beste kondaira batek osatzen du; horren arabera, Waldemarrek neskaxaren bila jarraitu zuen, hura Gurren hil eta gero ere. Hori horrela, eternalki ibili zen zaldiz baso eta lautadetan, bere maitea aurkitu nahian.

Beste hainbat aldiz bezala, istorioak nola edo halako aurrekari errealak zituen; kasu honetan, berrehun urte lehenago gertatutakoak: gure Waldemar hau Danimarkako Waldemar I.ena (1157-1182) dago inspiratuta, eta Helvig, berriz, haren emazte legitimoa izango litzateke, Sofie. Denbora luzez, Erdi Arotik, Gurreko kondairei buruzko baladak kantatu izan ziren. Gaia ezin erromantikoagoa zen: maitasuna, natura, naturaz gaindiko elementuak... Konpositorea literaturaren maitale handia zen, eta, ziurrenik, 1899an bazuen Jacobsenek idatzitako testuaren berri; izan ere, urte hartan argitaratu zen alemanez. Beharbada, hasieran, itzulpenaren zirriborroetan ere lan egin zuen. Edozelan dela ere, poemak modu saihestezinean finkatzen du *Gurrelieder*-en eskema, eta hiru ataletan banatzen ditu.

Lehenengoan, obrako unerik poetikoenak eta lirismo handienekoak gertatzen dira. Orkestraren preludioaren ostean, Waldemarrek (tenorra) eta Tovek (sopranoa) maitasun hutsezko kantuak eta

une epikoak tartekatzen dituzte, tarteka erregearen iragarpen dramatikoek astindutako giroaren erdian. Modu horretan, interludio labur eta zirraragarria sortzen da. Basoko usoaren kantuak (mezzosopranoa) neska gaztearen heriotzaren berri ematen du.

Bigarren atala da laburrena (lau edo bost minutu), eta, bertan, Waldemarren arrangura azaltzen zaigu soilik, bere suminaren berri emanez Jaungoikoari: "neu ere banaiz Monarka".

Hirugarrena giro goibel batetik sortzen da, eta, bertan, Waldemarren mamuak agerpen fantasmal eta naturaz gaindikoaren artean egiten dituen ehizaldi basatiei musika jartzen zaie. Nekazari batek (baxua) hildakoen partida deskribatzen du; Waldemarren gizonak dira, eta modu oldartsuan doaz zaldi gainean. Gero, beste bi abesti datoz: erregearena, Tove gogoratuz; eta Klaus bufoiarena (tenorra), haren arrangurak karikaturizatuz. Waldemar zerura doa, eta, berarekin batera, bere gizonak betiko desegiten dira. Epilogoan, preludioaren eta narratzailearen kontaktuzunaren ostean, azken apoteosia dator: eguzkiaren aldeko ereserkia, egunsenti berriaren esperantzarekin.

Musika

Dagoeneko aurreratu dugu *Gurrelieder*-ak ulertzeko funtsezko elementuetako bat: konpositore erromantikoen eragina oro har, eta Wagnerrena, bereziki. Schoenberg mundu horretako kidea zen, 1900. urteko martxoan lanok konposatzen hasi zenean, bai eta 1903an ia amaituta utzi zituenean ere. Hirugarren atala baino ez zen geratzen orkestratze-lanak amaitzeko. Baina urteak aurrera zihoazen, eta partiturak erabat abandonatuta



zirudien: "1910eko uztailan heldu nion berrito (...). Bistan denez, 1910 eta 1911. urteetan instrumentatutako zatiak orkestra-estilo guztiz desberdina du, I. eta II. atalekin konparatuta. Ez zen nire asmoa hori ezkutatzea. Aitzitik, argi dago hamar urte geroago beste modu batean orkestratuko nuela".

Zinez, 1900 eta 1910. urteen artean gauza asko gertatu ziren, baina bat nabarmentzen da beste guztien gainetik: harmonia tradizionala gainditu zela, alegia. "1908an, Schoenbergen musika ez zegoen inongo tonalitateran", esan zuen Webernek 1933an, lehenengo lan atonal huts gisa hartzen zituen *Pianorako piezak op. 11* delakoei buruz hitz egiterakoan. "Inork ezin du une hura bat-bateko zerbait izan balitz bezala imajinatu, jakina. Iraganarekin zituen loturak oso sendoak ziren". Schoenberg eta bere dizipuluentzat, tonalitatearen deuseztapena prozesu natural eta sailhestezin baten ondorioa zen, garai batean modu eklesiastikoen desagerpena ekarri zuen prozesua bezalako zerbait.

Garai honetakoak (1903-1909) dira *Pelleas und Melisande* poema sinfonikoa, harirako 1. eta 2. koartetoak, *Ganberako sinfonia op. 9*, *Bi lieder op. 14*, *Buch der hängenden Gärten* zikloa, *Bost orkestra-pieza op. 16*, *Erwartung* melodrama, edo aipatutako hiru *Pieza pianorako op. 11*. Apur bat orientatu gaitezen, urte haietan idatzi ziren, era berean, Richard Straussen *Salomé* (1905) eta *Elektra* (1909) operak, Debussyren *La mer* (1905), Mahlerren *Zortzigarren sinfonia* (1906), edo Pucciniren *Madame Butterfly* (1904).

Beraz, musikari dagokionez, *Gurrelieder*-rak obra tonal eta masiboki posterromantikoa dira, *leitmotiv*-aren erabilera handikoak, baina orkestrazioaren zenbait arlo Musika Berriaren hastapenetan daude. Horren adibide argia Klaus bufoiaren kantuekin batera agertzen diren ehundurak dira, edo instrumentuen erabilera. Edo narratzailearen kontakizuna, zeina *Sprechgesang* (kantu mintzatu edo deklamatua) izeneko teknikaren lehenengo erakustaldia

baita Schoenberg lanean, modu irekian iragarritzat *Pierrot lunaire* (1912) obraren espresionismoa.

Patua

Estreinatu bezain laster (1913ko otsailaren 23an, Vienan, Franz Schrekerren zuzendaritzapean), *Gurrelieder-ak* iraganaren parte izaten hasi ziren. "Nire patua ez zen *Verklärte Nacht* edo *Gurrelieder* lanen bideetatik jarraitzea, ez *Pelleas eta Melisande* obrarenetik ere. Komandante Gorenak lan gogorragoa jarri zidan", idatzi zuen konpositoreak 1948an. *Gurrelieder*-ek arrakasta izan zuten orduan eta arrakasta izaten jarraitzen dute ehun urte geroago ere, baina Schoenberg patua beste bide batetik zihoan, eta bera ere bide horretatik joateko prest zegoen, eternitatearen atea zeharkatu arte.

BOSEN 90. URTEURRENAREN EMANALDIA

Schönbergen Gurre-Liederren emanaldian, bertaratzen direnek eszenatokian dauden 260 pertsonaz gozatu ahal izango dute. Eszenatokian 89 musikari egongo dira, sexu bietako 165 abeslari, 6 bakarlari eta zuzendaria.



Stig Fogh Andersen, tenorra

Torsten Kerl tenor gaztea une honetako tenorrik arrakastatsuenetakoa da. Maiz aritzen da munduko opera-antzoki eta auditoriumik garrantzitsuetan, besteak beste, Wiener Staatsoper, Musikverein, New Yorkeko MET Opera, Milango Teatro alla Scala, Londresko Covent Garden, Hanburgoko Oper Musikhalle, Municheko Staatsoper, Amsterdameko Concertgebouw, Bruselako Opera, Bartzelonako Gran Teatre del Liceu, Parisko Théâtre du Châtelet, Maggio Musicale Fiorentino, Erromako Accademia di Santa Cecilia, Osloko Konzerthalle, Zuricheko Tonhalle, Genoako Teatro Carlo Felice, Tokioko New National Theatre eta abarretan.

Torsten Kerlek zenbait grabazio egin ditu Oehms, Orfeo, Arthaus, EuroArts, Naxos, Erato eta Philips disko-etxeetarako eta Bayreutheko Jaialdiko disko-etxerako; hain zuzen ere, azken horretan, Daniel Barenboimek zuzendutako *Die Maistersinger* ekoizpenean hartu zuen parte. Era berean, bere grabazioetan, Fabio Luisi, Kent Nagano, Semyon Bychkov (*Das Lied von der Erde*) edo Donald Runnicles (*Die tote Stadt*) zuzendariekin egin du lan, besteak beste.



Anne Schwanewilms, sopranoa

Anne Schwanewilms soprano alemana, gaur egun, Strauss eta Wagnerren musika ondoen interpretatzen duen abeslarietako bat da. Eszenatokian duen presentzia apartari eta ñabardura askoko ahotsari esker, nazioarteko opera-eszenako abeslariarik estimatuenetakoa da; era berean, arrakastaz eutsi dio aldakortasun artistiko handiko mailari, errepertorio zabala jorratuz: opera italiarretik hasi, eta oratorio eta *lieder*-etaraino. Zuzendari eta orkestra ospetsu askorekin egon da mundu osoko opera eta kontzertuetan. Kontzerturako bere errepertorioan, Berg, Mahler, Strauss, Beethoven, Mendelssohn, Schönberg, Verdi eta Wagnerren lanak daude. Liederren abeslari nabarmen gisa, Anne Schwanewilms lankidetzeta estuan aritzen da genero horretako laguntzaile garrantzitsuekin (Charles Spencer, Roger Vignoles eta Malcolm Martineau), eta nazioarteko kontzertu-aretoetan aritu izan da eurekin.

2012. urtean, bi disko argitaratuko ditu bakarlari gisa: bat, WDRko Orkestra Sinfonikoarekin (Wagner, Schreker eta Mozarten lanak), eta bestea, Gürzenich Orkestrarekin, Markus Stenzen zuzendaritzapean. 2002an, Anne Schwanewilmsen arte bikainak urteko abeslariarik onenaren saria jaso zuen, *Opernwelt* aldizkariak emanda.



Lilli Paasikivi, mezzosopranoa

Lilli Paasikivi sir Simon Rattle eta Berlingo Filarmonikoarekin batera egin zuen debuta, Frickaren rola jokatuz *Nibelungoaren eraztuna* lanean, Aix-en-Provenceko Jaialdiko ekoizpenean. Geroztik, Brangäneren rola jokatu du Monnaieko Errege Antzokian, Frickarena Hanburgoko Estatuko Operan, eta Kundryrena Frankfurteko Operan. Operan egindako beste agerraldi batzuen artean, Lyongo Opera Nazionalean Konpositorearen rolean egin zuen debuta aipatu behar da (*Ariadna Naxosen*), bai eta Toshio Hosokawaren operaren mundu mailako estreinaldia ere.

Lilli Paasikiviren kontzerturako errepertorioan, Mahlerren kantu eta sinfonien zikloak nabarmentzen dira. Bere emanaldirik entzutetsuenen artean, honako hauek daude: *Lurreko kantua*, Los Angelesko Filarmonikoarekin (Esa-Pekka Salonen), Ensemble Intercontemporain (Susanna Mälkki) delakoarekin eta Sydneyko Sinfonikoarekin (Vladimir Ashkenazy); 3. *sinfonia*, Londresko Orkestra Sinfonikoarekin (Paavo Järvi), Hanburgoko Filarmonikoarekin (Simone Young) eta Bergeneko Orkestra Filarmonikoarekin (David Zinman); eta *Hildako umeentzako abestiak* (*Kindertotenlieder*), New World Orkestra Sinfonikoarekin (Michael Tilson Thomas).

Lilli Paasikiviren diskografiaren barruan, lan hauek daude: Beethovenen 9. *sinfonia*, Leipzigezko Gewandhauseko Orkestrarekin (Riccardo Chailly); Sibeliusen *Kullervo sinfonia* (Osmo Vänskä / BIS); Mahlerren 3. *sinfonia* (Benjamin Zander / Telarc); Alma Mahlerren *Kantu guztiak* (Jorma Panula / Ondine) eta Mahlerren 8. *sinfonia* (Valery Gergiev / LSO Live).




Fernando Latorre, baritonoa

Kantu, Konposizio eta Orkestrazioko goi mailako tituluak lortu zituen, Karrera Amaierako Sariarekin eta Pedagogia Musikalarekin, Bilboko Goi Mailako Kontserbatorioan. Aldi berean, piano eta biola ikasketak egin zituen. Ikasketak handitu zituen F. Corelli, J. Aragall, E. Müller eta A. Krausekin. 1995/6 denboraldian, Milango Teatro alla Scala antzokiko Koru Filarmonikoan eta Operako Koruan sartu zen.

Operaren esparruan, maiz kantatu izan du Espainiako opera-denboraldi nagusienetan, zuzendari ospetsu askoren gidaritzapean: R. Marbá, J. L. Cobos, E. Müller, G. Neuhold, J. Acs, A. Ives, F. Chaslin, M. Ortega, A. Zedda, A. Guingal, E. Boncompagni, P. Halffter, C. Halffter, J. Mena, J. R. Encinar, C. Soler eta abar. Era berean, P. Domingo, J. Carreras, S. Ramey, J. Diego Flórez, R. Brusson eta abarrekin konpartitu du eszenatokia.

Bere azken lanean artean, hauek nabarmendu daitezke: L. Baladaren *Faust Bal*, Errege Antzokian; C. Halffterren *On Kixote* eta Bretónen *Dolores andrea*, Madrilgo Auditorium Nazionalean, eta bere azken opera, *Lazaro*, Valentziako Palaun eta Atenasko Megaron Concert Hall delakoan, Dvoraken *Te Deum*, Stravinskyren *Pulcinella*, Cimarosaren *Il Maestro di Capella*, Beethovenen 9. *sinfonia* BOSein, eta Haydnen 7 *hitzak* Euskadiko Sinfonikoarekin. Era berean, Busoniren *Turandot* Sevillako La Maestranzan, Gaiztambideren *Artista baten estreinaldia* eta Barbieriren *Gloria eta Peluca* Madrilgo Zarzuelaren Antzokian, *Eugene Onegin* Bilbon, eta Rossiniren *Le petit Messe Solenne* Leongo Auditoriumean.



Arnold Bezuyen, tenorra

Arnold Bezuyenek esperientzia handia dauka nazioarteko opera-antzekietan eta auditoriumetan; izan ere, besteak beste, Milango Teatro alla Scalas, Bayreutheko Jaialdian, Covent Gardenen eta Vienako Estatuko Operan aritu izan da. Logeren rola jokatu zuen, Metropolitanen *Rhineko urrea* lanari buruz egin zuen ekoizpenean, 2011ko martxoan. Bere hurrengo konpromisoen artean, Bacoren rola dago *Ariadna Naxosen* lanean, Bordelen; bai eta *Gurrelieder-ak* Bilbon, eta Sigfridoren rola *Jainkoen gainbehera* lanean ere, Dessaun.

Gainera, Amsterdam, Bonn, Düsseldorf, Kassel, Londres, Napoli, Stuttgart, Tokio eta Valentzian aritu izan da. Arrakasta handiz kantatu izan du *Nurembergeko maisu kantariak*, Royal Opera Housen (Covent Garden); *Boris Godunov*, Lizeoko Antzoki Handian; *Arabella*, Berlingo Opera Alemaniarrean; eta *Jenufa*, Hanburgoko Estatuko Operan.

Arnold Bezuyenek jende askorekin egin du lan; besteak beste, Pierre Boulez, sir Andrew Davies, Christoph Eschenbach, Adam Fischer, James Levine, Seiji Ozawa, Antonio Pappano, Jaap van Sweden eta Christian Thielemannekin.

Kontzerturako daukan errepertorioari esker, *Missa Solemnis* kantatu du Santiagon (Galizia), *Bederatzigarren sinfonia* Vienako Musikvereinen eta Hanburgon, eta *Lurreko kantua*, Dortmundeko Orkestra Filarmonikoarekin. Gainera, Arnold Bezuyenek Peter-Jan Wagemansen *Legende* lanaren mundu mailako estreinaldian hartu zuen parte. Azkenik, esan beharra dago Klaus Narr gisa agertu zela Schönbergen *Gurrelieder* lanetan, Montecarlon eta Berlinen.



Jon Fredric West, tenorra

Jon Fredric West *Sigfrido* laneko protagonistaren eta *Jainkoen gainbehera* laneko Sigfrido pertsonaiaren rola jokatzeko duen kantaririk garrantzitsuenetakoa da. Rol bietan aritu izan da, Eraztuna zikloaren barruan, Metropolitan Operan, Bavierako Estatuko Operan, Berlingo Opera Alemaniarrean, Stuttgarteko Estatuko Operan, Châteleteko Antzokian eta Las Palmaseko Antzokian.

Beste zenbait konpromisoren artean, hauek nabarmendu behar dira: *Tristan eta Isolde* (Oviedo, Madril eta Las Palmas), *Tannhäuser* (Metropolitan, La Monnaie, Berlin, Viena, Dresden eta Madril); Canio, *I Pagliacci* lanean (La Scala, San Frantzisko, Stuttgart eta Tel Aviv); kaisarra, *Itzalik gabeko emakumea* lanean (Milan, Munich eta Viena); Sanson, *Sanson eta Dalila* lanean (Metropolitan eta Zurich), eta *Otello* (Viena, Baltimore eta San Frantzisko).

Schönbergen *Gurre-Lieder* lanak eta Mahlerren *Das lied von der Erde* kantatu izan ditu New Yorkeko Filarmonikoarekin eta Zubin Mehtarekin, eta Beethovenen *Meza Handia*, sir Colin Davisen zuzendaritzapean. Leonard Slatkin, Seiji Ozawa, Riccardo Chailly eta Michael Tilson Thomasen gidaritzapean ere aritu izan da, eta, kantatu izan duen orkestren artean, Londres, Boston eta San Frantziskoko sinfonikoak, New York eta Israelgo filarmonikoak eta abar daude.



EASO Abesbatza

EASO Abesbatza 1949an sortu zen, eta munduko leku askotan nahi izaten dute bertan aritu dadin: Madrilgo Errege Antzokian, Bartzelonako Palaun, Parisko Pleyel Aretoan, Municheko Herkulessaalen, Monakoko Errege Jauregian, Bruselako Errege Antzokian, Buenos Airesko Colón Antzokian, Mexikoko Arte Ederren Jauregian, Bartlesvilleko (AEB) Auditoriumean, Berlingo Philharmonien, San Petersburgoko Alexandrinsky eta Hermitage Antzokietan, Parisko Salle Pleyel **eta** Châtelet Antzokian, Vladikavkazek Balletaren eta Operaren Antzokian...

Orkestra ugariarekin aritu izan da lankidetzan: Espainiako Nazionala, Frantziako Nazionala, Londresko Filarmonikoa, Portugalgo Gulbenkian, Bordeleko Filarmonikoa, Buenos Airesko Filarmonikoa, Radio-Televisión Española, Parisko Opera, Lyongo Nazionala, Tolosako (Frantzia) Kapitolioko Nazionala, New Yorkeko I Solisti, Galiziako Sinfonikoa, Euskadiko Sinfonikoa, Orchestra of the Age of Enlightenment... eta abarrekin.

Zuzendari ugari izan ditu: Igor Stravinsky, Serge Baudo, Sylvain Cambreling, Marek Janowski, Kurt Wöss, Bruno Campanella, Ransom Wilson, David Parry, Leopold Hager, Jesús López Cobos, Josep Pons, Arturo Tamayo, Juan José Mena, Victor Pablo Pérez, Günter Neuhold, Tugan Sokhiev, Andrés Orozco, Vladimir Jurowski...

30 grabazio baino gehiago egin ditu.



Andra Mari Abesbatza

1966an sortu zuen José Luis Ansorenak. Hain zuzen ere, Ansorena izan zen abesbatza honen zuzendaria, harik eta, 1994an, gaur egungo zuzendaria den José Manuel Tífek hartu zuen arte postua. Sari ugari lortu ditu zenbait lehiaketatan, eta Madrilén, Bartzelonan, Sevillan, A Coruñan eta Tenerifén aritu izan da, bai eta Perelada, Santander eta Donostiako jaialdietan, besteak beste. Euskadi, Bilbo, Tenerife, Galizia eta Madrilgo sinfonikoak, Espainiako Nazionala, Regional Bayonne Côte-Basque, Scottisch Chamber Orchestra, Buenos Airesko Filarmonikoa, Cadaquésko Orkestra, Thüringen Philharmoniae, XVIII. mendeko Orkestra eta abarrekin aritu izan da lankidetzan, zuzendari ugariarekin: F. Brüggen, J. López Cobos, J. J. Mena, A. Ros Marbá, A. Boreyko, A. Orozco-Estrada, V. Pablo Pérez, S. Ranzani, C. Mandeal, G. Neuhold, E. García Asensio, Robert King edo Philip Pickettekin, adibidez. Birak egin ditu Europako hainbat herrialdetatik eta Argentinatik, eta 18 grabazio diskografiko egin ditu. Musika koral mota guztiak jorratzen ditu, tartean operak eta zarzuelak, eta euskal musikan dago espezializatuta. Erreterian, Musikaste jaialdia (Euskal Musikaren Astea) sortu zuen. Jaialdi hori urtero egiten da. Era berean, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa ere sortu zuen; bertan, garai guztietako 2.000 euskal konpositoreen 30.000 partitura inguru daude.



Araba Abesbatza

Sabin Salaberrik sortu zuen 1968an, eta, geroztik, Euskal Herri osoan eta Espainiako zenbait probintzietan aritu izan da, mota guztietako jaialdietan. Europako hainbat herrialdetan ere kantatu izan du. Musikaren arloan dituen esparru ugarietan, zenbait orkestra sinfonikorekin aritu izan da maiz. Bere historian zehar, Araba Abesbatzak bi disko grabatu ditu bakarka, horietako bigarrena Jesús Guridi eta Vicente Goikoetxea arabarren musikari eskainia. 1997an, Samaniego Abesbatzarekin batera, Sabin Salaberriren lan koralean antologia bat grabatu zuen. 2003an, aipatutako koru biek, Gasteizko Udal Musika Bandarekin batera, Luis Arambururen lanak erregistratu zituzten. Era berean, Samaniego Abesbatzarekin batera, Gasteizko Seminarioari lotutako konpositoreen musikan oinarritutako disko bat grabatu du. 2008an, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 2008-2009 denboraldiaren inaugurazio-kontzertuan ere hartu zuen parte, Cherubiniaren Requiem kantatuz, Easo, Biotz Alai eta Voces Graves de Pamplona abesbatzekin batera. Oraingo zuzendaria Aitor Sáez de Cortazar da.



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendari titular eta artistikoa, Günter Neuhold

Bilbao Orkestra Sinfonikoa 1922ko martxoaren 8an eman zuen bere lehenengo kontzertua, Arriaga Antzokian, Armand Marsick zuzendaritzapean. Bizkaiko gizarte zibilaren bultzadari esker sortu zen, eta, geroztik, harreman estua dauka Bizkaia-ekin: gaur egun, esate baterako, 2.200 abonatu ditu Denboraldi Sinfonikoa.

Sortu zenetik, zuzendari titular garrantzitsuak izan ditu: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arambarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara, Juanjo Mena eta Günter Neuhold.

BOSeK, 90 urtetik gorako ibilbidean, lan handia egin du Bilbon, Bizkaian eta kanpoan. 2003ko uztailan, Valery Gergiev-ek San Petersburgoko Mariinski Antzokian jotzeko gonbita egin zion BOSi, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Kontzertu hori hiriarren 300. urteurreneko ospakizunen barruan izan zen. Kontzertua mugaria izan zen Orkestraren nazioarteko proiektio berriari; izan ere, harrezkero sarritan gonbidatzen dute Nanteseko *La folle journée* eta Marseillako *La Roque D'Antheron* jaialdietara. Birritan gonbidatu dute Japoniara: 2007an, Tokion 10 kontzertuko sorta eskaintzeko 40.000 entzule ingururentzat; eta 2009an, bira bat egiteko Osaka, Fukui, Tokyo, Fukuoka, Yokohama eta Gifu hirietan.

Nazioarteko foroetan daukan presentzia-az gain, BOSen historian nabarmendu beharra dago, Espainiako hirietatik egindako birei esker, zenbait hamarkadaz "Iparraldeko Orkestra" izatera heldu zela. Halaber, BOSeK maiz jo izan du Madrilgo Auditorium Nazionalan, Donostiako Musika Hamabostaldian, Santanderko Nazioarteko Jaialdian, Parisko Jaialdian edo Iberoaméricaren "Munduko Orkestrak" zikloan. 1998ko martxoan, Madrilgo Complutense Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zituen Carmelo Benaola, Cristóbal Halffter eta Luis de Pablo konpositoreak, eta BOS inbestidurako kontzertura gonbidatu zuten. 1998an, Euskadiren ordezkari izan zen Lisboako Nazioarteko Erakusketan, eta 1999an, berri,

Orkestraren egoitza den Euskalduna Jauregiaren inaugurazioan hartu zuen parte.

BOSen zuzendarien artean izen historikoak daude; besteak beste, Enrique Fernández Arbós, Bartolomé Pérez Casas, Ataúlfo Argenta, Eduardo Toldrá, Sir Malcolm Sargent eta Igor Markevitch, besteak beste, bai eta Charles Dutoit, Ros Marbá, García Asensio, Jerzy Semkow eta Josep Pons ere. Era berean, Maurice Ravel, Jesús Guridi, Pablo Sorozábal, Jesús Arambarri, Krzysztof Penderecki, Carmelo Benaola, Luis de Pablo, Ernesto eta Cristóbal Halffterren esku ere egon da, bai eta beraien obrak jo izan dituzten konpositoreen esku ere.

BOSeK, bere historia luzean, bakarlari handienetako batzuekin konpartitu izan du agertokia: José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacques Thibaud, Vladimir Horowitz, Fritz Kreisler, Joseph Szigeti, Henryk Szeryng, Vlado Perlemuter, Mstislav Rostropovich, Salvatore Accardo, Joaquín Achúcarro, Felix Ayo, Nicanor Zabaleta, Maurice André, Mischa Maisky, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Boris Belkin, Ivo Pogorelich, Jean Pierre Rampal, Asier Polo, Truls Mork, Sabine Meyer eta Frank Peter Zimmermannekin, besteak beste. Ahotsen zerrendan, Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo, Luciano Pavarotti, Ainhoa Arteta eta Waltraud Meier aipatu behar dira, bai eta Bilboko Koral Elkarte, Donostiako Orfeoia eta EHUKo Abesbatza ere.

Bere katalogo diskografikoaren barruan, BOSeK, Juanjo Menaren zuzendaritzapean, euskal musikari buruzko bilduma interesgarria grabatu du Naxos etxearentzat (Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate eta Escudero), bai eta Rodrigo eta Takemitsuren lanen bilduma ere, Kiyoshi Shomura gitarra-jotzaile japoniarrekin, EMI JAPAN etxearentzat. 1985ean, Arriagaren obrak grabatu zituen Jesús López Cobosekin. Era berean, Thorofon etxeak Schönberg-*en Gurrelieder* lanak editatu ditu CDan. Hain zuzen ere, obra hori zuzenean grabatu zen 90. urteurreneko kontzertuetan, Günter Neuholden zuzendaritzapean.

Euskalduna Jauregian egiten diren abonuko eta ganberako denboraldiak gain, BOS modu naturalean joaten da Bizkaiko herrietara ere, OLB-*eren* operetan kolaboratzen du, eta birak eta irteerak egiten ditu; gainera, Orkestrak lan pedagogiko handia egiten du: kontzertu didaktikoak 1985etik (ekimen horretan, aitzindaritzat har daiteke), Kontzertuak Familiar, eta musikaren bidezko gizarteratze-jarduerak. Era berean, lankidetzaren harremanak ditu beste kultur instituzio batzuekin, hala nola, Arriaga Antzokiarekin, Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Bilboko Arte Ederren Museoarekin.

BOSen jarduera bere zale ugarien babesari eta Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala babesleen ekarpenei esker garatzen da.



Günter Neuhold, Zuzendaria

Grazen jaio zen 1947an. 1969an orkestra-zuzendaritza ikasi zuen bere hiriko kontserbatorioan, eta hobekuntza-ikastaroak jaso zituen Franco Ferrararekin Erroman eta Hans Swarowskyrekin Vienan.

1972 eta 1980. urteen artean, Alemaniako Errepublikako Federaleko eskaintza ugari jaso zituen, eta Kapellmeister izatera heldu zen Hannover eta Dortmunden. Orkestra-zuzendaritzako lehiaketa ugari irabazi zituen.

Florentzian (1976), San Remon (1976), Vienan (1977), Salzburgon (1977) eta Milanen (1977). Ondorioz, karrera luze bati hasiera emateko aukera izan zuen.

1981-1986 aldian, Arturo Toscanini Orkestra Sinfonikoko eta Parmako Teatro Regio antzokiko musika zuzendaria izan zen.

1986 eta 1990. urteen artean, Flandesko (Anberes) Erret Filarmonikoaren zuzendari titularra eta zuzendari artistikoa izan zen, eta, orkestra horretan, lan handia egin zuen kalitate artistikoko maila handia lortuz. Orkestra horrekin abatera, zenbait bira egin zituen Italia, Alemania, Britainia Handia eta Frantzia,

1989tik 1995era, musikako zuzendari nagusia izan zen Karlsruhe-ko Badisches Staatstheater delakoan, eta, 1995etik 2002ra, Bremengo Antzokiko musikako zuzendari nagusia eta zuzendari artistikoa (Theater der Freien Hansestadt Bremen). 2008az geroztik Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari artistiko titularra da.

Orkestra ugari zuzendu ditu: Wiener Philharmoniker eta Symphoniker, Dresdeko Staatskapelle, Philharmonia Orchestra, Orchestre National de France, Orchestre Sinfoniche della Radio di Berlin, Köln, Hamburg, Leipzig, Baden Baden, Stuttgart,

Erromako Orchestre RAI, Maggio Musicale Fiorentino, Capito-le de Toulouse, Madrilgo Orkestra Sinfonikoa, RTVE, Sevilla, Galizia, Kanaria Handia, Tenerife, Bilbao, Euskadi, Valentzia, Bartzelonako Liceu, Lisboa, Gulbenkian, Tokyo Philharmonic eta Metropolitan, Moskuko Tchaikovsky Irratiaren Orkestra, ABC Australia Melbourne, Canadian B.C. Vancouver, Calgary, Mexiko, eta São Paulo eta Buenos Aireseko Orkestra Sinfonikoak.

Operako antzokirik garrantzitsuenetan izan da zuzendari: Milan, Erroma, Napoli, Venezia, Palermo, Bologna, Genoa, Viena, Berlin, Dresden, Munich, Leipzig, Zurich, Geneva, Madril, Montecarlo, Paris, Tolosa (Frantzia), Bordele, Estrasburgo, Marseilla, Lisboa, Bilbao, Graz, Oslo, Göteborg, Philadelphia eta Buenos Airesen.

Ospe handiko jaialdietan hartu du parte: Salzburger Festspiele, Radio France Montpellier, Granada, Flanders, R. Strauss Dresden, Enescu Bukarest Jaialdia, Santander, Rhin-Strasbourg-geko Opera eta Veneziako Biennalen.

Bere diskografia zabalean, grabazio hauek nabarmendu behar dira: Bizarurdinen gaztelua, La Damnation de Faust, Der Vampyr Pucciniren Madama Butterfly (Orphée d'Or 2003), eta Bachen Tetralogia, Pasioa San Mateoren liburutik, Verdi (Requiem), Bartók (Kontzertua orkestrarako), Stravinsky, Mahler, Brahms, Bruckner, J. Strauss, Kodály, Schreker, Wolf – Ferrari, Schnittke, Schulhoff, Tchaikovsky, Liebermann eta Rihmen lan sinfonikoak. Lehen aipatu dugun Wagnerren tetralogiaren grabazioa erreferentziatzat hartzen da sail ekonomiko-barruan.

1999an, "Austriako Errepublikako merituen ohorezko zilarrezko domina" jaso zuen.

12. EGITARAUA
BOS 90 URTE

ARNOLD SCHÖNBERG
(1685-1759)

Gurre - Lieder

Bakarlari, abesbatza eta orkestrarako
Erwin Stein bertsioa
Jens Peter Jacobsen testua

Waldemar	Stig Fogh , tenorra
Tove	Anne Schwanewilms , sopranoa
Waldtaube	Lilli Paasikivi , mezzosopranoa
Bauer	Fernando Latorre , baritonoa
Klaus-Narr	Arnold Bezuyen , tenorra
Narrador	Jon Fredric West , tenorra

Coro Easo Abesbatza

(Xalba Rallo, zuzendaria)

Coral Andra Mari Abesbatza

(Jose Manuel Tife, zuzendaria)

Coro Araba Abesbatza

(Aitor Sáez de Cortázar, zuzendaria)

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Günter Neuhold, zuzendaria

I. Teil / I. go Zatia

	Orchester-Vorspiel / Orkestra Preludioa	
I.	Waldemar	<i>Nun dämpft die Dämm'ung</i>
II.	Tove	<i>O, wenn des Mondes Strahlen</i>
III.	Waldemar	<i>Roß! Mein Roß!</i>
IV.	Tove	<i>Sterne jubeln</i>
V.	Waldemar	<i>So tanzen die Engel vor Gottes Thron nicht</i>
VI.	Tove	<i>Nun sag ich dir zum ersten Mal</i>
VII.	Waldemar	<i>Es ist Mitternachtszeit</i>
VIII.	Tove	<i>Du sendest mir einen Liebesblick</i>
IX.	Waldemar	<i>Du wunderliche Tove!</i>
	Orchester-Zwischenspiel / Orkestra etenaldia	
X.	Lied der Waldtaube	<i>Tauben von Gurre!</i>



II. Teil / II. Zatia

Waldemar	<i>Herrgott, weißt du, was du tatest</i>
----------	--

III. Teil / III. Zatia

Wilde Jagd / Ehiza basatia

I.	Waldemar	<i>Erwacht König Waldemars Mannen wert!</i>
II.	Bauer	<i>Deckel des Sarges klappert</i>
III.	Waldemars Mannen / Waldemarren Menpekoak	
	Chor / Korua	<i>Gegrüßt, o König</i>
IV.	Waldemar	<i>Mit Toves Stimme flüstert der Wald</i>
V.	Klaus-Narr	<i>Ein seltsamer Vogel ist so'n Aal"</i>
VI.	Waldemar	<i>Du strenger Richter droben</i>
VII.	Waldemars Mannen / Waldemarren Menpekoak	
	Coro / Korua	<i>Der Hahn erhebt den Kopf zur Kraht</i>
VIII.	Melodram / Melodrama	<i>Des Sommerwindes Wilde Jagd</i>
	Sprecher / Narratzaitzailea	<i>Herr Gänsefuß, Frau Gänsekraut</i>
IX.	Gemischter Chor / Koru mistoa	<i>Seht die Sonne</i>